

EKIALDE HURBILEKO GATAZKA. Negoziazioei berriz ekin ondoren, Belengo Natibitate elizatik atera dira 28 palestinar. Oraindik 27 erlijioso eta Israelek bilatzen dituen lau ekintzaile geratzen dira barrenean. Atzo soldaduek lau palestinar hil zituzten.

Janinen jazotakoa aztertzekeo batzordea desegitea proposatu du Kofi Annanek

PANen arabera, NBEko batzordea blokeatzearen truk Arafat askatzea hitzartu dute AEBek eta Israelek


Erredakzioa | DONOSTIA

PAN Palestinako Aginte Nazionalako eta Israelgo Gobernuko ordezkariak Belengo Natibitate elizaren setioa bukatzeko negoziazioei ekin zieten atzera atzo, eta, horren ondorioz, 28 gizonen elizatik atera ziren. Beleneko negoziatioek emaitzak eman badituzte ere, ez da halaxe gertatu Janingo errefuxiatu guneko gertaerak aztertu behar dituen NBE Nazio Batuen Erakundeko batzordearen kasuan. Izan ere, Israelek hirugarren aldiz esan du ez duela batzordearekin kolaboratuko. Elkarlanean aritzeko baldintzak jartzen segitzen du Tel Avivek. Hori dela eta, NBEko idazkari nagusi Kofi Annanek batzordea desegitea proposatu du. Bestalde, joan den igandean Hebron hirian berriz sartu ondoren, Tshah Israelgo Armadako tankeak bertatik jalgitzen hasi ziren atzo.

Israelek duela hilabete setiatua duen Belengo Natibitate elizako auzia konpontzeko bidean dela iduri du. Atzo negoziatioei harzara lotu ondotik israeldarrek eta palestinarrek akordio bat iritsi zuten. Horren arabera, zibilak eta erlijiosoak bertatik ilkian ebakuatuko dituzte. Hala, atzo 28 palestinar —tartean poliziakide palestinar bat— atera ziren elizatik, banaka eta fraide frantziskotar batek eta Anthony Salman abokatuak lagunduta. Ondoren, Armadaren autobus batean Kfar Ationgo base militarrean eraman eta israeldarrek galdekatu zituzten.

Halarik ere, Natibitate elizan Israelek bilatzen dituen lau palestinar eta 27 erlijioso geratzen dira. Sala Tamari buru duen negoziatio talde palestinarrek lau horiek Gazara eramatea nahi du; Israelek, aldiz, atxilotu nahi ditu. Greziara zein Italiara erbesteratzea negoziatzen ari dira. 27 erlijiosoek dagokienez, tenplutik ateratzeari uko egin diote.

Herenegun soldaduek tiroz hil zuten palestinarra elizatik «alde guztietara tiro egiten» atera zela esan zuten iturri militarrek, baina palestinarrek hori gezurtatu



MIKE NELSON / EPA

Palestinar bat, Belengo Natibitate elizatik ateratzen, frantziskotar baten eta Tony Salman abokatuaren artean.

eta hildakoa jateko belar batzuk biltzera atera zela esan zuten. Horren haritik, Aita Artemio Vitores frantziskotarrak txoil hitz gordin eta gogorrak ahoratu zituen Israelek ezarri setioaz: «Ez dugu elizatik atera nahi. Lehenik, gure etxea delako. Bigarrenik, funtsezko balio kristauak babesten ditugulako; kristautasuna hemen sortua da. Hirugarrenik, giza balioen eta pertso-

nen duintasunaren alde egiten dugulako basakeriaren aurka. Jaten eta edaten ez uztea, argia eta telefonoa moztea eta ahora eramateko belar batzuen bila ateratzen dena hiltzea... hori ez da gertatzen ezta munduko presondegirik okerrenetan ere».

Horrez gain, Vitoresek Europaren jarrera pasiboa salatu zuen: «Europak Belen berreraikitzekeo dirua emango du eta

kontzientzia garbiarekin lasai geratuko da». Auzian bitartekari aritzeko gaur iritsiko da Belenera Vatikanok bidalitako Roger Etxegarai kardinal lapurtarra.

Annan, azterketa batzordea bertan behera uzteko prest

Bestalde, Janingo errefuxiatu gunean Israelgo Armadak egingandakoa aztertu behar duen NBEko batzordea desegitea propo-

ARTEMIO VITORES

Belengo fraide frantziskotarra

«Ez dugu elizatik atera nahi, giza balioen eta pertsonen duintasunaren alde egiten dugulako basakeriaren aurka»

satu zuen atzo erakundeko idazkari nagusi Kofi Annanek. Erabakia Israelgo lehen ministro Ariel Sharonen batzordeari bere lana egiten utziko ez ziola adierazi ondoren hartu zuen Annanek. Haren esanetan, «NBEk Israel kontent uzteko guztia egin du. Tel Avivek hasieran batzordea ongi etorria izango zela esan zuen; gero esan zuen batzordeak ez zuela aditu militar aski. NBEk dena argitu du».

PANeko idazkari Ahmed Abdul Rahmanek atzo jakinarazi zuenez, Washingtonen eta Tel Avivek akordio bat iritsi zuten Janinen ikerketarik ez egiteko, Israelek Ramalan setiatua duen Jasser Arafat PANeko presidentea askatzearen truk. Rahmanen esanetan, «Estatu Batuen berme ziur eta argiak jaso ondoren hartu du erabakia Israelek». Arafat datozen orduetan askatuko dutela diote.

Orobat, Israelgo Atzerri ministro Shimon Peresek atzo esan zuen Janinen soilik zazpi zibil palestinar hil zirela. Bizkitartean, PANeko Gobernazio ministro Saeb Erekatetik esan zuen batzordea deseginez gero «NBERen historian aurrekaririk gabeko gertaera» litzatekeela. Gisa berean, Libanok NBERi galdegina dio Israelen kontrako neurri zorrotzak hartzea.

Atzo Tshahgo tankeak Hebrondik ateratzen hasi ziren. Haatik, inguruko hainbat herri setiatuak zituzten. Atzo soldaduek lau palestinar hil zituzten, hiru Gazan eta bat Tulkaremgo Nur Esh-Shams errefuxiatuentzako gunean.

Bestalde, *Defentsa Murrua* operazioan arpilaketak egiteagatik, 10 soldadu inkulpatu ditu Israelgo auzitegi batek.

TESTIGANTZA

Lorategi ederren tokia

Honatx 'Jerusalem.Indymedia.org' webgunean Janinen izaniko Ana Valdes idazleak eta Cecilia Parsberg artistak idatzita utzi duten lekukotza:

«Gazte bat bonbardatutako eskolara iritsi da, hautsaren kontrako maskara batekin. Plastikozko poltsa batean dakarrena ematera etorri da. Gizaki baten hondakinak dakartza. Jihadeko kide zen Mohammad Toulhandenak direla uste du. Argazkilariek poltsaren argazkiak atera eta beste leku batzuetara doaz.

(...) Janingo errefuxiatu guneko erdigunea hondatuta dago, hiru futbol zelai adinako zulo

handi bat, hondakinez betea, besterik ez da geratzen. Bertatik hilotzen usaina dator. Inork ez daki seguru zenbat dauden lurperatuta, hilik, etxeen hondakinen azpian.

(...) Ualid doktorea 20 egunez egon da Janingo ospitalean itxita, ia urik gabe eta elikagai gutxirekin. Argindarra egun gutxira moztu zuten, baina soldaduek Gurutze Gorriari bi sorgailu sartzen utzi zioten; horiek gabe ezingo zituzten hilotzak mantendu. Eta soldaduak, oraindik han zebiltzanez, izurriteen beldur ziren. Ospitalera eramandako gorpu gehienak zibilenak ziren, emakumeak eta umeak nagusiki. Palestinako Gurutze Gorriko burua inbasioaren bigarren egunean hil zuten. Beste mediku bat leherketa baten ondorioz hil zen.

(...) Janindik joan arren, han gara, arabieraz lorategi ederren tokia esan nahi duen hirian.